

Bidankozeko gerraosteko euskaldunak

Gorka Lekaroz Mazizior
Euskal Filologian lizentziatua

Lan honen helburua Nafarroako Bidankoze herrian bertako euskara gorde zuen XX. mende erdialdeko azken belaunaldiari buruzko albisteak ematea da. Ezaguna da euskararen desagertzearen kronologia zehatza Erronkari iparraldean, 1950etik aurrera ikertzaile zenbaitek hondar hiztunen mintzoa jasotzeari ekin ziolako Izaban zein Uztarrozen; baina hegoalderago dauden herrien inguruko oso datu gutxi iritsi zaizkigu. Gaur egungo adineko bidankoztarren haurtzaroko eta gaztaroko oroitzapenetan oinarrituz, duela hainbat hamarkada ezagutu ahal izan zituzten euskaldunei dagozkien xehetasun batzuk bildu dira artikuluan.

GAKO-HITZAK: Erronkaria · Bidankoze · Galera · Azken hiztunak.

Basque speakers in Vidángoz (Navarre) during the 20th century.

This article aims to provide a series of data on the last generation of Vidángoz Basque speakers that preserved the Roncal Valley Basque dialect in the mid-twentieth century. The chronology of the loss and disappearance of the Basque language in the northern towns of the Roncal Valley is well known, because different researchers collected data from the speakers themselves during the second half of the last century, but there is hardly any reference to the most southern villages. These pages bring some news from the testimony and recollections of the current elderly inhabitants of Vidángoz, who came to know the last speakers of the Basque language decades ago.

KEY WORDS: Roncal Valley Basque dialect · Vidángoz · Loss · Last speakers.

Jasotze-data: 2014-01-15. Onartze-data: 2014-03-12.

1. Sarrera

Dakigunez, Nafarroako lurralde askok galdu dute berezko euskal mintzoa gibelean utzi dugun XX. mendean zehar, beste hainbat eremutan XIX.ean eta are lehenago gertatu bezala. 1970eko hamarkadatik aurrera dialektologiarekin lotutako ikerketa eta landa-lanak ugaritu zirenetik eskualde batzuetako hizkeren desagerpena bertatik bertara ezagutu ahal izan dugu: Arakilen, edota Artzibar, Zaraitzu zein Erronkari ibarren iparraldean, besteak beste, azken hiztunen lekukotasun baliotsuak jasotzeko garaiz heldu dira ikertzaileak, eta haran horietako aldaerei zegozkien ezaugarri asko bildu eta aztertu ahal izan dituzte¹.

Toki frankotan, haatik, ezin izan da horrelakorik egin. Eredu batzuetan (Eguesibarren edo Zaraitzuko Galoze inguruan, adibidez) aspaldi testu aipagarriak utzi zituen euskara hura inoren aipamenik gabe iraungi zen joan den mendean zehar, azken hiztunen arrastorik laga ezinik. Beste zenbait ibarretan —Antsoainen edota Urraulgoitin, esaterako— duela hamarkada gutxi galdutako mintzoen antzinako lekukotasun idatzi egokirik ere ez da agertu gaurdaino.

Hartara, lan hau euskara ia isil-gordeka galdu zuten leku horietan hizkuntzari eutsi zioten azken haien oroitzapen gogoak eragin du. Balio al du ezertarako haran edo herriren batean azkeneko euskaldun zaharrak zein izan ziren edota noiz bizi izan ziren jakiteak? Baietz uste dut. Batetik, gure aurrekoen izaera, ohitura edo jakintzak gogora ekartzea ondare ez-materiala aberasteko bidea delako beti; eta bestetik, harrizkeoa delako zein azkar gal daitekeen hizkuntza bat sekula hitz egin izanaren kontzientzia, are duela hagitz urte gutxi arte erabili izan den leketan ere; eta on delako agerian jartzea Nafarroako eremu zabal askoan euskara ez dela aspaldiko gauza urrun hutsa, hori berma dezaketen lekukoak ditugun bitartean batik bat.

Horrelako ahalegina egiteko toki egokia da Bidankoze. Batetik, orain arteko albiste urritasunagatik beragatik: Erronkari iparraldeko herrietan hurbiletik aztertu ziren euskararen azken arrastoak, eta horrek ezagutarazi dizkigu 1991n hildako Fidela Bernat uztaerak², Iزابako Antonia Anaut (1976), Maria Ezker urzainkariarra (1974), eta beste hainbat hiztun; Bidankozeko aldaerari dagokionez, aldiz, gaur arte idatziz paratu diren albisterik berantiarrenak 1930eko hamarkadakoak dira, eta gerraostean eman ziren argitara *Euskera* aldizkariaren bidez (Irigarai, 1956: 42). Hainbat urte beranduago mintzo hura iraungitzat jo bitarteko hutsunea ongi bete gabe dago oraindik.

1. Koldo Artola izan da azken hamarkadetan datu-biltzaile nagusia Nafarroako euskararen hegoguan zehar. Artzibarri buruzko gaiak 2006 eta 2013 artean paratu ditu *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian (ik. laburpen gisa Artola, 2013), eta Zaraitzukoak ere lehendik bertan emana zen (2002-2006; ik. besteak beste, Artola, 2005). Egile bera nabarmendu beharra dago Erronkari haranari dagokionez (1991 eta 2000). Arakil ingurua dela-eta, ik. Camino (2005). Arakildik Artzibarrera bitarteko muga-herriez, ik. Artola (1992).

2. Ik. Artola, 1991 eta 2000. Nafarroako Euskararen Mediateka ere balia daiteke gaur egun Fidela Bernat zenaren mintzoa sarean entzuteko <http://www.fonoteka.com/eu/euskalkiak/28#.UxcD1_I5OSp>.

Bestetik, Bidankozeko lekukoen ugaritasun eta egokitasuna ere aipatu beharra dago. Tokian tokikoaren galeraren kronologia argitzeko zailtasun handi samarrak antzeman daitezke eskualde batzuetan; Iruñerri aldean, eskuarki. Azken hamarkadetakoz gizarte-aldaketa sakonekin eta haiek eragindako urbanizazio-prozesu azkarrarekin lotutako zailtasunak dira: hiriburuaren jarraipen eta hiriburu bazterretako bizileku bihurtu diren heinean, gaitzagoa izan ohi da eremu horietan sustrai sakonak dituzten adineko berriemaile egokiak topatzea. Egoera horren aldean, Bidankozek hobeto eutsi dio bere nortasunari, ez dago arazorik herrian aspaldi luzean errotutako familiak aurkitzeko, eta bere txikian behinolakoaz hitz egin dezaketen 70-90 urte bitarteko lekuko baliagarri ugari ditu oraino.

Hala ere, nahiz eta berriemaile egokiak izan, Bidankozen erronkarieraz mintza zitezkeen hondar hiztunak 1930eko hamarkadan hil balira nekez biziko zen gaur egun haien berri zuzenik emango zigunik. Eta ez da horrela gertatu. Badira oraindik euskaraz aritzeko gauza izan ziren azken auzoak gogoan dituzten Bidankozeko seme-alabak; eta ez da beranduegi, horrenbestez, euskaldun zahar haietako batzuen izena eta izana ezagutu eta oroitzapenari eusteko³.


Bidankozen jaiotako hamasei lagunengana jo dut herriko azken erronkariarantz hiztunak bilatzeko ahalegin honetan. Hamabik zuzen-zuzenean erantzun dute, eta senide gazteagoen bidez gainerakoek. Datu esanguratsu gehienak, dena den, hamabi horiek jakinarazi dizkirate. Gaur egun oso sakabanatuta dauden bidankoztarrak dira: baten bat herrian bertan bizi da, baina aspaldiko urte hauetan bizitokia sorlekutik kanpo dute askok, dela Otsagabian, Iruñerrian, Tuteran edo Zaragozan. Bidankozera uda partean-edo joan ohi dira batzuk, baina bada herria urteetan ikusi ez duenik ere⁴.

Hemendik aurrerakoa hiru zatitan banatuta dago. Lehenik eta behin, Bidankozeko euskararen galera-prozesuaren zenbait xehetasun ekarri dira gogora; ondoren, XX. mendeko bidankoztar euskaldunei buruz jasotako albisteak daude. Azkenik, gogoetaren bat bildu dut lanaren amaieran.

3. Bihotzez eman nahi dizkiet eskerrak Gotzon Pérez Artutx eta Dabid Lalana Salbotx bidankoztarrei, haien interes, bilaketa, ohar eta aholkuek hurbildu nautelako elkarrizketatu ahal izan ditudan berriemaileengana. Eta berriemaile horiei beraiei ere bai, erronkariari eutsi zioten azken arbasoak gaur arte gogoan izateagatik eta zekitena nirekin elkarbanatzeko agertu duten borondate eta pazientziagatik. Bidankozeko euskararen katea erabat eten ez eta herriko euskaldun zaharrei buruzko orrialde hauek idazteko aukera egotea, haien meritua da.

4. Ondorengo zerrendan kontuan hartzeko moduko albisteak eman dizkizaten berriemaileak besterik ez ditut izendatu. Biren inisial hutsak ageri dira, haien izen osoa ematerik nahi izan ez dutelako: A.J.U. (1931); Alejandra Salvoch Jimeno (1927); Dolores Urzainqui Mainz (1944, D.U.); E.J.J. (1922); Engracia Mainz Pérez (1931); Evaristo Urzainqui Hualde (1931); Fermina Artuch Juanco (1921, F.A.); Marcelino Pasquel Ornat (1932); María Esther Sanz Iriarte (1941, M.S.); Porfirio Mainz Mainz (1923; arrebaren bidez); Severino Ornat Sanz (1931, S.O.); Teresa Hualde Pérez (1930).

2. Aurrekariak: Bidankozeko euskararen gainbehera Bidankoze, Garde eta Burgi.



Iturria: Carte des sept provinces basques (1863). L.L. Bonaparte.

Garde eta Burgikoarekin batera, Erronkariko azpieuskalkiaren hegoaldeko aldaeran sailkatu zuen Luis Luziano Bonapartek Bidankozeko hizkera 1860ko hamarkadan (Bonaparte, 1863). Hizkuntzaren egoerari zegokionez bazen alderik, hala ere, hiru herrien artean.

Printzeak 1866an emandako xehetasunen arabera, gutxi batzuk baino ez ziren euskaraz mintzatzen Burgin; eta ez, inola ere, gazteak. Pentsa daiteke, beraz, XIX. mendearen lehen laurdenean zehar eten zela euskararen jarraipena herri hartan⁵, eta erronkaria galbidean jarri zuen haizea gizaldiarekin batera hasi zela astintzen haranaren hegoaldea.

Bonapartek bere mapa handia prestatu zuenean, euskarak indartsu zirauen eremuaren barrenean irudikatu zituen Bidankoze eta Garde. Sendotasun hura azalekoa baino ez zen, ordea. Bidankozen gehiengoa zen oraindik euskaldun 1860ko ingurumari hartan, baina ordura arteko biztanleek gurasoengandik (ia) salbuespenik gabe jasotako erronkarieraren katea kolokan egongo zen herriko etxe askotan.

Gertaera ugari azkartu zuten XIX. mendearen azken laurdenetik aurrera ordu-rako abian zen Erronkariko euskararen gainbehera. Gerra urteek, irakasle erdaldunak iristeak eta haiek euskararekiko hartu zuten jarrerak⁶, harana zeharkatu behar zuten errepidearen eraikuntza-lanek... kanpotarren etorrera erraztu zuten gertakari haiek guztiek, eta ordurako gizonezko askok ikasitako gaztelania txoko guztietan sarrarazi eta nagusi bihurtzen lagundu zuten, zeinek bere neurrian.

5. Dena den, Bidankozen jasotako albisteak kontuan hartuz, mendearen bigarren laurdenean zehar jaiotako burgiar batzuek behinik behin euskarari eutsi ziotela susma daiteke.

6. Erronkariko euskararen gibelatze-prozesuan maisu-maistrek izandako eraginaz, ik. B. Estornes Lasa, 1983: 216 eta Sanz, 2010: 15. Bidankozeri dagokionez, 1890eko hamarkadan jaiotako birramona baten lekukotasunari esker, 1900 inguruan herrian eraztun beltza ezagutu zutela jakin zuen Gotzon Pérez Artutxek.

Bertakoa gutxietsirik, kanpotik zetorren eta inguru zabalean aski errotuta zegoen erdarak emango zuen hizkuntza baliagarri bakarra; argudio gutxi eskain zezakeen euskarak uste horri aurre egiteko, zenbait apaizen hizkuntzarekiko atxikimenduaz edo neska gazteek Maulera espartin egitera joatean ama-hizkuntza erabili ahal izateaz landara. Bidankozeri dagokionez, lagunduko ote zuen Zuberoan hilabete asko eman behar horrek —eta bidean uztarroztar edo izabar pittin bat euskaldunagoekin bat egiteak— beste puxka batean (1880ra arte-edo) hondar neskato belaualdi euskaldun samar bati eusten?⁷

Seguru asko XIX. mendeko 70eko hamarkadan zehar eten zen herrian lehen-dik ere pitzatzen hasitako euskararen jarraipena. Hizkuntza etxean taxuz jaso zuten bidankoztarren arrastoa 1870 ingurura arte behintzat aurkitu dut; baina ordu-tik aurrera egoera oso azkar aldatu zen. *Fuertes* etxeko albisteak aldaketa horren isla argia dira: ezin da ziurtatu Maximina Fuertes Maizterra (1873-1947) euskaldun osoa zenik; ezagutu zuten guztiak bat ez datozen arren, euskaraz dena ulertu bai baina hizketan trinkili-trankala moldatzen zen erdaldunaren irudia da nagusi: *sabía vasco* (E.J.J.); *no sabía tanto* (S.O.); *no sabía tanto, entendía todo* (A.J.U.). Maximinaren ahizpa Vicenta (1883-1971) hamar urte beranduago jaio zen: hura ere askok dute gogoan. Aipatu azken bi lekukoen esanetan ahizpa zaharrenak baino are euskara gutxiago zekikeen gazteenak (*sabía menos que la hermana*, A.J.U.). Nolanahi ere, jakin bazekien zerbait (*sabía muchas palabras, canciones*⁸, adierazi dit María Esther Sanz bilobak), eta berriemaile horren arabera mezuak kodifikatu nahi zituztenean —Vicentaren semeak ez ulertzeko, adibidez— euskara erabiltzeko gauza ziren ahizpa biak (*usaba [euskara, Vicentak] con la hermana para que no entendiera mi padre*, M.S.). 1873an eta 1883an jaiotako bidankoztar haiek euskaraz alde edo moldez baliatzeko gauza zirela erakusten duten lekukotasunak dira, nahiz eta ez dagoen haiek euskaldun betetzat jotzeko moduko adostasunik: *muga-hiztunak* liriateke, hiztun oso izan-ez izan bitarteko eremu labainkorrean geratutakoak; eta ordurako galtzen hasitako transmisioa hamar urteren buruan eskastu egin zela iradokiko luketenak. Baina *Fuertes* etxeko alabek eutsi egin zioten neurri batean bederen euskarari; argi dago hori. Ez zen hura belaualdi

7. Bidankozeko (eta oro har, Erronkari ibar osoko) neska gazteak negu partean Maulerantz espartin-lanera abiatzeko ohitura XIX. mendearen azken laurdenean indartu zen eta XX.ean zehar iraun zuen, 1920ra arte-edo behintzat. Enarak joatearekin etxea utzi, eta haiek itzultzeko sasoiari bueltatzen ziren herrira, udaberri partean. 1900 eta 1911 bitartean Bidankozeko 21 neskak egin zuten lan Maulen. Ez ziren joandako bakarrak: ugariago abiatzen ziren XX. mendearen hasieran Huesca aldetik Erronkaritik baino. Baliagarri zuketzen erronkariarrek euskara Zuberoan moldatzeko, baina ez ezinbesteko; eta 1900az haraindiko espartingile bidankoztarrek (uztarroztarrek ez bezala, gutxirako bazen ere) nekez eramango zuten etxetik bortuez bestaldean moldatzeko adinako euskararik. Berandura arte eutsi zioten edonola ere Bidankozeko neskatoek Mauleko lanbideari: 1891n *Garro* etxean sortutako Donata Jimeno Ornat, esaterako, han ibili zen, eta *Ornat* etxean hamarkada berean jaiotakoren bat ere bai, Gotzon Pérez Artutxek jaso duenez. Zoritxarrez aspaldi joan zaizkigu emakume haien aurreko espartingile bidankoztarrek Maulen edo Maulerako bidean erabilitako hizkuntzaz hitz egin zezaketzen lekukoak. Zuberoa aldean izan ohi zuten bizitzaz gehiago jakiteko, ik. Gorria, 1983. Erronkaritik abiatzen ziren *enaren* inguruko hainbat xehetasun dago eskura Interneten (<<http://www.nora-aldizkaria.info/pdfak/2008/nora1.pdf>> edota <<http://www.lakukula.com/numeros/28.pdf>>, esaterako).

8. *Arre, arre, manddoko / Biar Urrimiarako... ['Uruñarako' desitxuratua?]* jaso diot María Esther Sanzi. Biloba sanztar batek baino gehiagok du oraindik hasieratxo hori gogoan, Vicenta amonak zer kantatzen zien ez ulertuta ere.

hartako bidankoztar guztien egoera izan, Vicenta bezala 1880ko hamarkadan jaiotako Mariano Mendigatxaren bilobak ez baitziren euskaldun hazi. Alferrik saiatu zen hainbat urte beranduago aitona bera haiek euskarara hurbiltzen. Bilobek ez zioten beste inori entzuten hizkuntza hura; eta ez zuten ikasi nahi izan⁹.

Orain arteko guztia kontuan harturik pentsa liteke Bidankozeko euskararen belaunez belauneko transmisioaren erabateko etena ez zela ez une ez abiadura berean agitu herriko etxe guztietan, Bonaparteren bidaiez geroztikakoa dugula eta ez zela 1880 baino askoz lehenago gorpuztu. XX. mendea hasi zenerako, nolana ere, erdaldunak ziratekeen haur nahiz gazteak¹⁰, eta herriko karriketan euskara arras apalduta edo desagertzetik hurbil zegoen.

Arestian esan bezala (§ 1.), Aingeru Irigarairi zor diogu ikertzaile batek Bidankozeko euskararen iraupenari egindako azken erreferentzia; 1935eko datua da. Sendagile nafarraren ustez bere sailkapeneko VII. multzoa zegokion herriari, adineko gutxi batzuek besterik ez zekitelako euskaraz, eta adineko haiek ere ez zutelako erabiltzen. Kalean ez behintzat, ikusi dugun bezala dexente zaharragoa baita Bidankozeko euskararen desagertzea *publikoa*. Baina bazen euskal hiztunik, 1939 eta 1941 bitartean Igaritik Erronkarirako errepidea egitera bidalitako preso euskaldun batzuek, hainbat urte beranduago, Bidankozen inoiz edo behin euskaraz ere hitz egin izana zutelako gogoan¹¹.

1960 osterara arte ez zen Bidankozeko egoeraren inguruko inolako albisterik bildu. *Yo ya no sé nada, antes ya se hablaba*, esan zuen herriko andere zahar batek 1964ko udan euskarari buruz galdetuta (M. Estornes Lasa, 1964). 1970eko hamarkadaren hasieran desagertutzat jo zuen Pedro Irizarrek (1973: 56) Bidankozeko aldaera, zegozkion hiru herrietan euskaldunik ez zela adieraziz. Urte haietan ikertzaileak Uztarroze eta Iزابako hizkeren azken printzak jasotzen ari ziren bitartean, oihartzunik gabe isildua zen bidankoztarren euskal mintzoa. Hemendik aurrera datorrena desagertzea isil hura pittin bat argitzeko ahalegina da.

9. Ik. J. Estornes Lasa, 1984: 63 [1903-IV-25ean Mendigatxak bilobez ari dela Azkueri igorri eskutitza; *nola ezbaitey ñonere entzuten ele bat ezik nik erraiten dabeidanak, eztokey ikas ñolako gisan*]. Hizkuntza-aldaketa eta hizkuntzaren galera gurean nahiz munduan zehar luze-zabal jorrotutako gaiak dira. Gertakari horiei buruzko hainbat kontzeptu eta adibide ezagutu nahi izanez gero, ik. Dressler (1981). Nafarroako euskarari dagokionez, ederki deskribatu zuen 70eko hamarkadako egoera Sánchez Carriónnek (1972). Euskal Herritik kanpoko galera-prozesuen erakusgarri, ik. Peyró (2005). Ohiko desagertzea-joerari aurre eginik hainbat hizkuntzak haien egoera lehengoratzeko egindako ahaleginei buruz, ik. Fishman, 1991 eta 2000.

10. Egungo berriemaileek gogoan dutenez, 1890eko hamarkadan jaiotako bidankoztarrek bazekizkiten euskarazko gauza aunitz zahartzaroan, baina inola ere ez euskaraz ongi hitz egiteko beste.

11. Ik. Mendiola eta Beaumont, 2006: 281. Bidankozen bizi zen Dolores Goienetxe aipatzen da bertan: «*horrek ez daki gosea zer den*» esan zuen euskaraz bere errainari buruz ari zela, hari ez omen baitzitzaion gustatzen Doloresek presoek jaten ematea. Dolores Goienetxe, ordea, Bidankozeko *Diego* etxera ezkonduko otsagabierra zen, Gotzon Pérez Artutxek jakinarazi didanez. Dena den, izan zen Bidankozen jaiotakorik ere presoekin euskaraz aritu zirenen artean, ikusiko dugun bezala. Hainbat argitalpen eragin du azken urteotan Igaritik Bidankozeko errepide-lan behartu hark. Interesa duenak Barajas (2007) edota Mendiola (2011) ere kontsulta ditzake.

3. Bidankoze eta euskara XX. mendean zehar

3.1. Lehen mende erdia: euskara galbidean, baina ez erabat galduta

Garbi dago Irigaraik bere ikerlana egin zuen garaian desagertzeaz zegoela Bidankozeko *uskara*; ikusezina izango zen azken hitzuneekin harreman zuzena ez zuten herritarrendako. Erdararen nagusitasunak erabat zokoratuta, ia beti etxe barrenekoak ziren une jakinetan besterik ez zen agertuko, hiltorian dauden mintzoei gertatu ohi bezala. Hizkuntza jendaurreko funtzio guztietatik aspaldian erauzirik, lasai-lasai gerta zekiokkeen urte haietako haur bati bere inguruan euskara bazegoenik ere ez sentitzea, edota gaur egun, hamarkada asko igaro ostean, halakorik ez gogoratzea, hizketak eta galderek oroimena bizitu bitartean gutxienez: berriemaileren batek duda izpirik gabe erantzun du hasieran bere gazte denboran ez zela Bidankozen euskaraz egiten. Gero, solasari helduta, xehetasun interesgarriren bat kontatzeko gauza izan da bera ere. Baina lekuko mota horrentzat, ustez behintzat, «euskara ez zen existitzen» bere haurtzaroko Bidankoze hartan, hizkuntzaren agerpena guztiz noizbehinkakoa eta ahula zen seinale¹². Hori da egungo adineko gutxi batzuen artean nagusitu den pertzepzioa.

Bestelako bizipenek bultzatuta euskararen gainean oparago mintzatu ahal izan direnak, azken euskaldun haiekin bizi izandakoak dira eskuarki, baten bat ondo-ondoan izan zutenak. Etxe barrenean ia beti, edo —oso lantzean behin— kaleko unean uneko hartu-eman pribatuetan. Bidankozeko zenbait familiatan gutxienez bazen oraindik adineko erronkaria-hiztunik gerra bukatu ondoren, eta berriemalerei esker ezagututako zerrendatxo emango dut jarraian, jaiotetxearen eta heriotza-dataren arabera antolaturik. Zuhurtasunez hartu beharreko zerrenda da noski, aspaldiko oroitzapenetan duelako oinarria, eta azken batean euskaldunak ez diren lekuko batzuek besteren euskalduntasunaz duten irudian oinarrituta dagoelako, baina gerraostean ere, urte mordoxka batez, Bidankozeko euskarak apal-apal bizirik jarraitu zuela ziurtatzeko adinakoa dela uste dut¹³.

3.2. Bidankozeko zenbait etxe euskaldun 1935az haratago

3.2.1. Landarna

Agirien arabera, 1646an nahiz 1677an Juan Landa izeneko jabea zuen Bidankozeko etxe honek. Aspaldikoak dira beraz abizena eta etxea¹⁴. Azken honetan bizi izan zen Petra Nicolasa Jimeno Sanz (1859-1939), Gerra Zibila amaitu zen urte berean zendutako andere bidankoztarra. Engracia Mainz bilobak eman du amonaren berri. Berriemalerei horrek 8 urte besterik ez zituen Nicolasa hil zenean

12. Hondar hiztun horien hizkuntza-gaitasuna auzoentzat ikusezin izatearen ifrentzua, hiztun horiek beraiek jasan ohi duten bakardadea da, bai kate baten azken katebegi sentitzeagatik, baita batzuetan haiek ere ez jakiteagatik inguruan beste mintzakiderik baduten ala ez (ik., adibide gisa, Fernández, 2007). Erronkari ibarrean bertan, Izabako Antonia Anaut zenak herriko azken euskalduna zela uste zuen, erronkarierez ederki zekien Sotera Ederra artean bizi zelarik (Lopez-Mugartza 2006: 171).

13. Honako bi baldintza hauek bete behar izan dituzte zerrendaratu ditudan bidankoztarrek: a) berriemalerei batek edo gehiagok zalantzarik gabe euskalduntzat jotzea, eta b) hori berresteko daturik ez zutenek kontrako argudiorik ere ez izatea.

14. Gotzon Pérez Artutxek jakinarazi dit datu hori. Bidankozen *Landagoiena* eta *Landeta* lekuzenak daude gaur egun (Lopez-Mugartza, 2006: 397).

eta, zoritxarrez, ez du gogoan hura sekula euskaraz entzun izana. Ez da agertu herrian *Landarnako* emakume hau aipatu didan beste inor, baina amonaren euskalduntasuna gauza ziurtzat du Engraciak, etxekoei behin eta berriz entzundako albistea baita. Hamarkada bereko euskaldun gehiago ezagututa¹⁵ eta Irigarairen 1935eko azalpenak kontuan harturik, datua egiazkotzat jotzeko modukoa dela ematen du, eta horregatik jaso dut hemen, eskuratutako argiena ez izanik ere.

3.2.2. *Maisterra*

Maisterra abizena ere ez da atzo goizekoa Bidankozen: 1613ko dokumentu batean¹⁶ adibidez, ageri da. Laurehun urte igarota galdua da, baina izen bereko etxearen baitan iraun du. *Maisterrak* berandu samarrera arte eutsi zion gainera euskarari. Rosa Ramona Salvoch Hualde (1857-1940) da horren adierazgarri. Etxe bereko Casimiro Salvoch eta *Pelair*eko María Cruz Hualde ziren Rosaren gurasoak. Beste bi alaba izan zituzten: urtebeterekin hildako Paula Estefanía, eta 1863an sorturiko Francisca Paula. Azken hori ere euskalduna izango zen noski, baina ez dut Bidankozen hartaz oroitzen den inor aurkitu. Herriko adineko zenbaitek *Tía Rosa* esaten zioten haren euskalduntasuna, aldiz, zalantzarik gabe ziurtatu dute bi bilobak: 1921ean jaiotako Fermína Artuchek, eta urtebete gazteago den E.J.J.-k, biek izan baitzuten amona euskaraz entzuteko aukera. Ferminak dioenez, halaxe aritzen zen ondoko herriren batetik Bidankozera iritsitako bizilagun batekin, baita Orontzen jaiotako Estefanía Hualderekin ere. Estefanía Rosa baino hamabost urte gazteagoa zen, aitarik gabe geratu omen zen umetan, eta Bidankozera eraman zuen Rosak ahizpatzat harturik. Bizitzaren hondarrean euskaraz aritzen zitzairen tarteka Rosa Salvoch ezer ulertu gabe entzuten zioten bilobei ere.

3.2.3. *La Santa*

Etxe berri samarra da *La Santa*, 1907an eraikia. Indiano-etxea da gainera: Fidel Santiago Sanz bidankoztarrak Amerika aldera egin zuen eta baita joan baino aberatsago itzuli ere, 1905ean. Herriratu eta handik lasterrera etxea eraikitzeari ekin zion emaztearekin batera. Emaztea Severina Fuertes Larequi andere euskalduna zen (1865-1946), *Xapateroko* Domingo Fuertes en eta *Elizaldeko* María Santos Larequiren alaba, *Elizalde* etxean bertan sortua eta hil, aldiz, aipatutako *La Santan* hil zena.

Bilobetako bat izan dut emakume hari buruzko albiste-iturri nagusi; Severino Ornat, hain zuzen ere¹⁷. Gertukoei ere ihes egin die batzuetan, hondarrak behatz artean bezala, azken euskaldun haien oroitzapenak; eta aipatzekoa da Severinoren arrebak ez duela gogoan amonak euskaraz bazekien ala ez; arreba horren

15. Mariano Mendigatxaren alaba Ramona Inés, esaterako, 1933an hil zen. Mendigatxak Azkueri idatzitako eskutitzetan irakur daitekeenez euskal hiztuna zen (J. Estornes Lasa, 1984: 71). Ikusi dugun bezala (§ 2), alabarena izan zen etxe hartako azken belaunaldi euskalduna, Azkueren laguntzailearen bilobek ez baitzuten euskararik ikasi.

16. Nafarroako Artxibo Nagusiko agiria da, *COMPTOS-VALORACIÓN-Legajo 21* signatura duena. Digitalizatua dago. Miguel Mazterra (sic) izeneko bat aipatzen du agiri horrek.

17. Dena den, zorretan nago oraingoan ere Gotzon Pérez Artutxekin. Hari esker jakin nuen beste inork niri aipatu aurretik Fuertes anderearen berri, lehendik ere entzuna baitzien Gotzonek Severinaren ondorengoei hura euskalduna zela.

senarrak, aldiz, ez du dudarik egin eta bat etorri da koinatuarekin. Severinok ez du zalantzarik; amonak aise egiten zuen euskaraz. Ez hori bakarrik: andere hura izan zen Ornat jaunaren arabera Igari-Bidankoze-Erronkari errepidea egiten ari ziren presoekin euskaraz mintzatu zirenetako bat. Izango zuen horretarako aukerarik, preso haiek Bidankozen hutsik zeuden etxe batzuetan sartu baitzituzten, eta lantokira joateko plazatik pasatu behar zutelako, Severina Fuertes en etxe ondotik, alegia.

3.2.4. *Paskel*

Marcelino Pasquel du izena aipatu berri dudana Severino Ornat en koinatuak. Balio handiko berriemailea izan da, baina ez Severina Fuertes zena euskalduntzat jotzeagatik bakarrik; *Paskel* etxearen inguruko xehetasunak emateagatik batik bat, etxeari buruzkoak nahiz bere amonari buruzkoak. Izan ere, Pasquel jauna Petra Atanasia Salvoch Elizalde (1856-1947) emakume euskaldunaren biloba da. Andere hori ez zen abizen bereko Rosa Salvochen senide hurbila, José Antonio Salvoch eta Francisca Elizalde bidankoztarren alaba baizik.

Petrak lau urterekin galdu zuen ama eta handik gutxira amona ere bai; aitona ezagutzera iritsi ere ez zen egin. Aita bigarren aldiz ezkondu zen alargundu ostean eta horrexegatik Felicia Garate burgiarra bihurtu zen Petraren amaorde. Felicia 1838an jaioa zen: datu interesgarria da, Burgin euskara Bidankozen baino lehenago galdu zela jakinda. Petrak orduko Bidankoze hartan euskarari eutsi bazion, etxean jaso zuelako izango zen ezinbestean, eta hizkuntzaren jarraipenean amak horren garrantzitsuak izanik, ez da samurra 1838an sortutako emakume burgiar hura besterik gabe erdalduntzat jotzea. José Antoniok eta Feliciak beste hiru seme-alaba izan zituzten; zoritxarrez ez dut haiei buruzko xehetasunik jaso.

Petra Salvoch heldutasunera iritsi aurreko bidean ilungune aipagarri bat dago: 10 urtetik 20ra bitartean ez omen zen *Paskel* etxean bizi izan (ez dago garbi neskame joanda edo zer dela-eta, ez eta Bidankozen bertan geldituta ala herritik kanpo). Bistan da dena den ez zuela ez haurtzaro ez gaztaro barerik izan, eta hainbat tokitan ibili zela harat-honat. Azkenean Bidankozeko emagin bihurtu zen eta urte asko eman zituen lanbide hartan, harik eta ardura Martina Ornatek hartu zuen arte. Herrikoek oso maite izan zuten Petra Salvoch emagina.

Euskaldun osotzat du Marcelino Pasquelek amona Petra, duda izpirik gabe (*Sabía muy bien*), eta haren euskalduntasunaren zenbait irudi gorde ditu gainera: Rosa Salvoch aurkezterakoan aipatu dudana Estefanía Hualde oronztarra eta amona Petra hainbat aldiz entzun zituen euskaraz; Marcelinori berari eta etxeke gainerako haurrei ere euskaraz hitz egiten zien haserretzen zenean errietan emateko (*para que no entendiéramos lo que decía*). Azkenik, Sakana aldeko zikirtzaile euskaldunak joaten zirelarik ibarrera zerri zikiratzera, haietako batekin amona euskaraz gustura asko aritzen zela du gogoan *Paskel* etxeke jaunak.

3.2.5. *Ornat*

Lehenagotik ere Bidankozeko euskararen historia txikian tinko txertatutako izena da hori: *Ornat* en munduratu zen 1796an Mariano Mendigatzaren ama Melchora. Ez zen, ordea, ama-seme haiekin eten etxe hartako euskararen jarioa;

lau berriemaile ezberdinek dute oraino gogoan hantxe sorturiko Juana Paula Ornat Pérez bidankoztarra (1864-1950, Francisco Ignacio Ornat eta María Ignacia Pérezen alaba) euskal hiztuna zela. María Ignacia Burgin jaioa zen (1833), Petra Salvochen amaorde Felicia Garde bezala. 1830eko hamarkadan zeharreko burgiar batzuk gutxienez euskaldunak izan zirela eta (Bidankoze euskaldunagoan behinik behin) euskara transmititu ere egin zutela susmatzeko arrazoirik badago.

Lau berriemaileetatik hiru Paula Ornaten bilobak dira (A.J.U., E.J.J. eta Alejandra Salvoch); laugarrena (Severino Ornat) Paularen anaia baten biloba. Laurek entzun ahal izan zuten euskaraz *Garro* etxera ezkonduetako andere hura, eta denek jo dute inolako ezberrik gabe euskalduntzat (*aquella sabía bien*, A.J.U.). Alejandra Salvochek, adibidez, bere bi amonak ikusi ohi zituen etxean erronkarieraz hizketan: Paula bera, eta laster aipatuko dudan Alejandra Calderero. E.J.J.-k, bestalde, euskaraz kanta ziezaiela eskatu ohi zion amona Paulari gainerako bilobekin batera: *abuela, ¡cántenos en vasco!*; eta hark elizako kantak abesten zizkien. 80 urte beranduago, berriemaile horrek gorde du oraindik Paula Ornati entzundakotik Mendigatxak bildutako «*Gairon, Gairona*» ezagunaren arrasto xumeren bat:

Gaiun, gaiun eliza, sortu Jesus... Nazareneko eliza, sortu gaiuna...

Severino Ornaten ustez emakume hura izan zen 1939 eta 1941 bitartean errepide-lanetan zebiltzan presoekin euskaraz hitz egin zutenetako beste bat.

3.2.6. Calderero

Bidankozeko *Calderero* etxean jaio zen 1859an arestian aurkeztutako Severina Fuertes senarra, Fidel Santiago Sanz, Amerika aldera joan eta aberats bueltatu zen hura (§ 3.2.3.). Ez dago ziurtatzerik gizon hura emaztea bezala euskaraz aritzeko gai zen ala ez, baina garbi dago etxe hartan Fidel baino beranduago sortutako emakume bat behintzat euskaldun hazi zela: Josefa Alejandra Calderero Sanz (1869-1952). Aita, José, Salamancako herrixka batean jaiotako karabineroa zen, baina *Anxelmo* etxeko Agustina Sanz bidankoztar gaztearekin harremanetan ibili zen nonbait, eta ezkondu egin ziren azkenean Alejandra bera munduratzeko bi aste eskas falta zirenean. Ezkontza harekin batera *Calderero* izena hartu zuen ordura arte *Anxelmo* zenak.

Alejandra Salvoch bilobaren oroimenean gaur arte iraun dute bere amona zenak eta haren euskalduntasunak. Esan bezala (§ 3.2.5.), lekuko horren bidez jakin dut Alejandra Calderero eta Paula Ornat euskaraz aritzen zirela elkarrekin. Gazteek ulertzerik nahi ez zutenean ibiltzen ziren horrela bi emakume haiek. Oso begiko izan zuen Alejandra amonak izen bereko biloba, hainbat mutilen ostean jaiotako neska izateagatik agian. Hala, goxotasun bereziz hartu ohi zuen eta luze aritzen zitzaion honetaz eta hartaz kontu kontari. Gaztelaniazko kontuak izan ohi ziren haiek, bilobak ez baitzekien beste hizkuntzarik, baina haiekin batera, Alejandra Salvochek sei bat urte zituela, honek Gabon kanta luzetzat daukana irakatsi zion Alejandra Calderero amonak. 86 urteko bidankoztarrak ez du gaurdaino ahaztu duela zortzi hamarkada ikasitakoa edo horren isla bat bederen, eta behin eta berriz esateko gauza da, ia aldatu gabe:

*Belelen, Belelen,
sortu Jesus Nazare.
Nazareneko liza, en guriona kantate,
ogi xuria ostiarako, ardaun ona kalitzeko,
bertan bertan konbertite lesukristu goretako.
Txutxurubitate, Natiribitate.
Gairon gairona, argizagia, mellallandia,
zutan fiatze mundu guzia.
Ollarrak ata txoria mundu guzuti.
Goazen aingurieki, arkanxelireki, ga[u]r kantatzera,
gore erregiak en Xinko semiarena adoratzera¹⁸.*

Gutxienez bi kanta-zati ezberdinen nahasketa ematen du Alejandra Salvochek gogoan duenak. Batetik, Eguberri bezpera arratsaldean ibarrean abestu ohi zen eta Paula Ornatez ari nintzela ahotan hartu dudan *Gairon, Gairona* izenekoaren hainbat atal antzeman daitezke. Bestetik, Alejandraren jardunaren amaierak Erronkarin ez ezik Zuberoan ere kantatutako *Goazenak* dakartza gogora; haien hasierako ahapaldia hain justu ere, ezagunena. Juan San Martinen arabera, diru-eskean ibiltzeko erabili ohi ziren kanta hauek, baina *Goazenak* helduek abesten zituzten, eta *Gairon Gairona*, aldiz, hurrek (San Martin, 1976: 14). Baliteke Bidankozen horrenbeste eman dezakeen beste lekukorik gelditzea, baina hala baldin bada nik ez dut aurkitu.

3.2.7. *Salbotx*

Bidankoztar bat baino gehiago ikusi du herriak azken hamarkada hauetan ehun urte betetzen. Horietako bat, *Salbotx* etxeko Ciriaco Salvoch Juanco, —XX. mendearen hasieran jaio eta 103 urte zituela 2009an hildakoa— zeharkako lekuko ezin interesgarriagoa da, bere oroitzapenak ondorengoei kontatu zizkielako eta horri esker dutelako haiek gaur Martina Salvoch Salvoch (1870-1949) eta María Jacinta Salvoch Salvoch (1871-1952) ahizpa euskaldunen aditza.

Ahizpa biak Ciriacoren izebak ziren, Gabriel Salvoch aitaren arrebak, alegia. Gabriel, Martina eta Jacintaz gain beste zazpi seme-alaba izan zituzten Froilán Salvoch eta Marcelina Salvoch gurasoek. Hamar guztira. Gabriel, adibidez, 1874an jaio zen, eta beste lau munduratu ziren ondoren. Berdin-berdin jasoko al zuten hamarrek gurasoen euskara muga-urte haietan? Litekeena da erantzuna ezezkoa izatea, eta *Fuertes* etxean gertatu omen zen bezala aldea egotea zaharrenetatik gazteenetara *Salbotx*enean ere.

Dena den, Ciriacoren izeba Martina eta Jacinta gutxienez iritsi ziren 1870eko hamarkadan euskara etxean berenganatzera. Horren lekuko izan zen urte luzez

18. Laugarren lerrotik aurrerako guztia behintzat neke handirik gabe lotu daiteke XX. mendean zehar Erronkari ibarrean jasotako materialekin, Salvoch anderearen bertsioan ulermen ezak eragindako deformazioa handixkoa izan arren. Erronkariko eite garbia dute edonola ere hark gogoan dituen askok: *goretako* 'guretzat', *Gairon gairona* 'Gabon, gabona', *aingurieki* 'aingeruekin', *arkanxelireki* 'goiaingeruekin' (Fidela Bernatek *arkanxaliek*)... Beste zenbait hitzetan nabarmenagoa da desitxuratzea, B. Estornes Lasak (1983: 220) 30eko hamarkadan Izaban jasotakoaren aldean [bikote bakoitzean izabarra doa bigarren]: *bertan bertan vs ketan* [= haietan] *bietan* / *Txutxurubitate vs urterebitate* / *mellallandia vs mirall* [= mirari] *andia* / *Ollarrak ata txoria mundu guzuti vs Ollarra txuri mundutik*...

ezagutu zituen iloba, eta hark kontatu zuen hainbat urte beranduago bi ahizpak euskaraz aritzen zirela elkarrekin. Horrela heldu da albistea Ciriaco Salvochen biloba den Dabid Lalana Salbotxengana.

3.2.8 Lengorna

Bidankozeko beste hainbat bezala (*Landarna, Hualderna...*), hau ere sinkoparen azpian -REN jatorri-atzizkia ageri duen -RNA amaieradun etxea da.

Herriko hondar euskaldunen zerrenda honetan orain arte agertutako guztiak emakumeak izan badira ere (Erronkarin ohi bezala)¹⁹, gizonezko bat aipatuko dut azkenik: Antonio Evaristo Urzainqui Salvoch, hain zuzen ere (1872-1959). Gizon izate hutsak albistea susmopean jar dezake, baina datua sinesgarria da eta ez dago alde zuzenetik baztertzeko arrazoi sendorik. Bidankoztar hari buruz esan dezakedana, izen bereko Evaristo Urzainqui bilobak kontatu dit.

Egun 82 urte dituen Evaristo ez zen gurasoekin hazi, aiton-amonekin baizik; haiekin txiki-txikitandik bizitzeaz gain erreferentzia ezin gertuagoa izan ziren berarentzat. Aitona, esandako Antonio Evaristo zen. Amona ere aipatu dut orrialde hauetan zehar: Estefanía Hualde (1872-1949), *Maisterrako* Rosa Salvochek ahizpa bailitzan Bidankozera eramandako oronztar euskalduna (§ 3.2.2.). Evaristo bilobak dioenez, 1930eko hamarkadan zehar, bera haurtxoa zelarik, euskaraz mintzatzen ziren aiton-amonak etxe barrenean haien jarduna etxeko gazte-txoek ulertzerik nahi ez bazuten. Urte batzuk beranduago berriemailea koskortu zenean hori egiteari utzi ziotela ematen du, edota bilobak gehiago entzun ez ziela gutxienez. Etxeko giroari guztiz lotutako euskararen erabilera izango zen horrenbestez aiton-amonen artekoa, eta hori dela-eta esplikaz gainerako berriemaileek Evaristo zena ezagututa ere euskaraz bazekien ala ez ezin ziurtatu izana.

Heriotza-data berantiarrak auzitan jarraz dezake *Lengorna* etxeko jaunaren euskalduntasuna. Are gehiago, arestian esan bezala, gizonezkoa izanik, eta emakumezkoak izan zirelarik oro har azken euskaldunak Erronkari osoan. Baina komunikazio-testuingurua —euskara etxe-girora mugaturik, gazteagoek ez ulertzearen— sinesgarria da eta hainbat berriemailek bermatu dute beste kasu batzuetan. Jaiotza-datari dagokionez, bestalde, *Salbotx* etxeko ahizpen edota Alejandra Caldereroren inguru-ingurukoa zen Evaristo. Azkenik, baliteke oronztar batekin ezkondu izanak zekienari hobeto eusten laguntzea, Orontzen euskara Bidankozen baino beranduagoa arte gorde zelako eta ez litzatekeelako harriztekoa emaztea, haurtzaroan, senarra bera baino euskaldunagoa izatea. Guztia kontuan hartuta, ez dut Evaristo Urzainquiren euskaldun izatea ukatzeko pisuzko arrazoirik ikusten eta, zuhurtasun osoz bada ere, Bidankozeko hondar hiztunen zerrenda honetan tokirik baduela iruditzen zait.

19. Luze deskribatu zuen Sánchez Carriónnek (1972) Nafarroan barrena antzeman zuen hizkuntza-aldaketa prozesuan emakumezkoek izandako eragina, gaztelaniari dotoreago irizteagatik, hiriko bizitza nahiago izateagatik, eta, azken batean, herritik kanpoko etorkizunaren bilaketan erdara baliagarriago sentitzeagatik —ik., besteak beste, Iturmendi, Ituren edota Etxalarri buruzko azalpenak—. Erronkarin, ordea, neguan Erribera aldera joan ohi ziren gizonezkoek eragin zuten hizkuntza-aldaketa eta andrazkoak izan ziren gordetzailerik (1972: 180).

3.3. Bigarren mende erdia: Bidankozeko euskararen kondarrak

Orain arte aipatu ditudan ustezko euskal hitzun guztiak desagertu ostean ere, berandura arte bizi izan dira euskara pixar handi samarrak gorde dituzten bidankoztarrak: Marcelino Pasquelen aita Félix Pasquel Salvochek (1891-1974) 1800 inguruko Martin Bixente Larranbe arbasoari buruzko bertsotxo bat kantatu ohi zien Marcelino eta haren anaia Crisantorri. Félixek ez zuen seguru asko euskaraz ongi jakingo, baina semeei abesten zienaren esanahia esplikatzeke gauza zen. Marcelinok honela du gogoan bertso-zati desitxuratu samarra:

*Martin Bixen Larranbe, noble persona,
usande uri guti eta boruntate ona*²⁰

Bere abizenaren etxeko Martina Ornatek ere (1896-1984) bazekien zer edo zer: *hablar corriente, no; pero entendería muchas cosas* (S.O.); sarri askotan entzuten zioten zahartzaroan *ixilikonai*, horrelako esapideek euskarak berak baino luzeago iraun izanaren erakusgarri. *Santxena* etxeko Constanca Pérez Sanzek (1905-1999) hamar arte behintzat bazekien zenbatzen, eta biloba euskara ikasten hasi zenean galdetu egiten zizkion amonak zenbakiak, ongi zekizkien ikusteko (D.U.). Interes berezikoak dira *Garro* etxeko Donata eta Fulgencia Jimeno Ornat ahizpei buruzko albisteak, Paula Ornat euskaldunaren alabak baitziren. *Largotenara* ezkonduko Donatak (1891-1994) euskara oso ezezaguna ez zuela iduri du: *sabía contar* (F.A.); *sabía muchas cosas* (S.O.). Alejandra Salvoch berriemai-learen ama Fulgencia, aldiz, aski anekdota deigarri baten protagonista izan zen 1970eko hamarkadan: udalekoa Bidankozen zuten Donostiako haur euskaldun batzuk jolasean ari ziren herriko plazan eta Fulgencia ikusirik iseka egin zioten euskaraz. Andere bidankoztarrak haien trufak entzun, eta hizkuntza bera erabiliz egin omen zien aurre, eta errietan eman ere bai. Euskara zenbateraino edo nola baliatu zuen ez dakidan arren, kontatutakoa hala izatera, Fulgencia Jimeno zenak bazekikeen euskarazko pixarren bat baino gehixeago.

4. Ondorio gisa

a) Berriemaile frankok adierazi dutenaren arabera ohikoa zen Bidankozeko azken euskaldun edadetu haiek gazte erdaldun inguratzen ikusi orduko euskarazko hizketa etetea edota entzulea uxatzea. Gotzon Pérez Artutxek *ixilikonai* eta *aski duk* jaso ditu herrian: horixe zen egungo adinekoek ordukoengana gerturatzean entzuten zutena, haiek solasteari utzi edota gaztelaniara jo aurretik. *Aski duk* hori Marcelino Pasquelek gaur gogoan duela ziurtatu ahal izan dut nik. A.J.U.-k, bestalde, ez ditu ahaztu bera bezalako gaztetxoak heltzean elkarri *ixiládi* esanez mututzen ziren herriko zenbait amona. *Ixiládi* hori bera ez ezik, *naiko* ere gehitu dit herritik duela 55 urte atera zen Teresa Hualdek. *Los despachaban para que no oyeran*, Mariano Mendigatxaren birbiloba Porfirio Mainzen hitzetan esanda. Azken orduko hitzun haiengan lotsa, *uskara* erabiltzeko halako beldur zantzu bat edota mintzo zaharra ezkutukoari baino ez egokitzearen sentipena nahasten zirela pentsa liteke. Euskara gauza egokia ez izatearen pertzepzioa, antza.

²⁰. *Pero ni sabíamos lo que era...* —dio Marcelinok berak— *mi padre nos solía decir que era una persona que tenía mucha voluntad pero dinero nada; éste era el tatarabuelo. Usande uri* horren amaieran '*diru*' dagoela ematen du beraz; baina iluna da gainerakoan hasiera.

b) Uztarrozen edo Izaban egin zen bezala azken euskaldun zahar bidankozta-
rren hizkuntza-ondarea biltzea ezinezkoa izan bada ere, eta gaur egun inguru
osoko euskal mintzoak zeharo galduta egonagatik, Bidankozeko euskararen
desagerpena ez da horren aspaldiko kontua²¹. Jasotako albisteen arabera, herriko
euskara taxuz eman zezaketen lekukoak 50eko hamarkadara arte bizi izan ziren.
1950ean grabagailua hartuta Bidankozera joandako balizko ikertzaileak ez zuten
1970ean Izabara edo Uztarrozera joandakoak baino askoz gutxiago bilduko,
seguru asko. Ordura arte behintzat bizi izan zen Bidankozeko euskara; eta azken
hiztun osoak desagertu ostean ere, hainbat urtez iraun dute ondorengo
oroimenean euskaldun zahar haiei entzundako hitz, kanta, bertso edota esaldiek.
Bertako mintzoaren egin zuen garaiko isiltasuna gairak, ordukoak baino
egun hobek ezagutzen ari da gaur euskara Bidankozen; ez zen zaila. Gauzak
horrela, eta 1950 inguruko azken belaunaldi euskaldun hark utzitako arrasto
apalari esker, XX. mendea hasi zenerako erronkaria kale-girotik eraitsia zuen
herri honetan ez da euskararen katea zeharo etetera heldu, Nafarroako leku
anitzetan, zoritxarrez, gertatu zen bezala.

Bibliografia

- Artola, K. (1991): "Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (I)", *FLV*, **58**, 247-281.
 ———, (1992): "Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)",
FLV, **60**, 187-227.
 ———, (2000): "Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (eta II)", *FLV*, **85**,
 487-512.
 ———, (2005): "Zaraitzua aztertzeko ekarpen berriak (9 – Espartza: ahozko
 testuak)", *FLV*, **99**, 213-264.
 ———, (2013): "Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (7 – barnera begirako
 zenbait erkaketa)", *FLV*, **116**, 31-89.
 Barajas, J. (2007): *Batallones disciplinarios (Esclavos del franquismo)*, *Associació per a la
 Memòria Històrica i Democràtica del Baix Llobregat*.
 Bonaparte, L.L. (1863): *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle
 de l'euscara*, Londres.
 Camino, I. (2005): "Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna", *FLV*,
99, 265-286.
 Dressler, W.U. (1981): "Language shift and language death – a Protean challenge for the
 linguist", *Folia Linguistica*, **15**, 5-28.
 Estornes Lasa, B. (1983): "El dialecto roncalés en la muga de Aragón y Bearn", *IKER*, **2**
(Piarres Lafitteri omenaldia), 215-229.
 Estornes Lasa, J. (1984): "Mendigatxa'k Azkue'ri kartak 1902-1916", *FLV*, **43**, 55-128.
 Estornes Lasa, M. (1964): "Verano de 1964 en el Pirineo vasco, fichas breves", *Boletín de
 la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, **XX**, 465-471.
 Fernández, A. (2007): "Actitudes y representaciones entre los tehuelches o aonek'enk
 acerca de la extinción de su lengua y la pérdida de elementos culturales", in A.
 Medina eta A. Ochoa, *Etnografía de los confines. Andanzas de Anne Chapman*,
 UNAM, Mexiko hiria, 283-293.
 Fishman, J. (1991): *Reversing Language Shift: Theory and Practice of Assistance to
 Threatened Languages*, Multilingual Matters, Clevedon.

21. Ezta Gardekoa ere, seguru asko; baina datu gehiago bildu beharko lirateke herri horretako
egoera hobeto ezagutzeko.

- , (2000): *Can Threatened Languages Be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*, Multilingual Matters, Clevedon.
- Gorria, A.J. (1983): “Desplazamientos demográficos temporales desde el valle de Ansó al Pirineo francés”, *Temas de antropología aragonesa*, **2**, 40-50.
- Irigarai, A. (1956): “Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935”, *Euskera*, **I**, 41-46.
- Irizar, P. (1973): “Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca. Estudio lingüístico-demográfico”, *BRSVAP*, **XXIX**, 4-78.
- Lopez-Mugartza, J.K. (2006): *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia, Iruñea eta Bilbo.
- Mendiola, F. (2011): “Lejanas montañas, recuerdos cercanos: Historia y Memoria del trabajo de prisioneros andaluces y extremeños en las carreteras del Pirineo navarro (1939-2010)”, *Revista de Estudios Extremeños*, **LXVII**, **2**.
- , Beaumont, E. (2006): *Esclavos del franquismo en el Pirineo. La carretera Igal-Vidángoz-Roncal (1939-1941)*, Txalaparta, Tafalla.
- Peyró, M. (2005): “La desaparición de las lenguas de la Patagonia”, in L. Mameli eta E. Muntañola (ed.), *América latina: realidades diversas*, Universitat Autònoma de Barcelona, Barcelona, 317-327.
- San Martín, J. (1976): “Fragmentos de canciones del “uskára” roncalés”, *CEEN*, **22**, 5-18.
- Sánchez Carrión, J.M. (1972): *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- Sanz, E. (2010): “La frontera, la casa y el valle: referentes de la sociedad pirenaica tradicional”, *Sancho el Sabio*, **32**, 11-41.

